



TOLOSATIK PANAMARA RUTA QUETZALEKIN

Ane Ezeizabarrena begirale izateko hautatu dute uda honetan; Panama eta Espainiako hainbat lekutan ibiliko da 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-06-08

VIURTEA 1.455 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Kultur Asteburuaren baitan atzo, zaldi raid ikastaroa egin zuten; gaur mendi eta bizikleta martxak egingo dituzte. N.U.

JENDEAREN JAKINMINA PIZTU DU ZALDI RAID IKASTAROAK BEDAION

BEDAIO 35 lagunek hartu zuten parte Kultur Asteburuaren baitan eginiko ekitaldian; gaur emango diote amaiera mendi martxarekin 5

Mendizale bat hil da Balerdi mendian amilduta

AMEZKETA Gizonezkoak buruan kolpea hartu zuen; helikopteroz eraman zuten erietxera 5

TXOMIN ISUNTZA ETA MIKEL MAIZ MENDI TALDEKO KIDEAK

«Guk ez dugu mendi taldearen beharrik, baina zenbait jendek, bai»

ASTEASU Sagain mendi talde berriko kideek «herrian saltsa sortu» nahi dute 7



A. OTERMIN



IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka

A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa zlg - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 01200 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550
e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com

ELEKTRIZITATEA

Ekipe eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)
Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA

Mekanizazio (Erdi Maila)
Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa)
(Goi Maila)

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 2tik 13ra



I Inkesta



Nork irabaziko du Buruz buruko Txapelketaren finala?

Oinatz Bengoetxea

■ %17

Abel Barriola %83

- «Aupa leitzarrak!».
- **Sakandarra.** «Aupa leitzarrak bai!».
- «Aupa leitzarrak bai, baina batez ere Aupa Abel Barriola! Espero det aurtengoan txapela berak irabaztea.».
- «Aupa Oinatz!! Txapela zurea da!».
- «Oinatzek eurre eman baer do!».
- «Aupa oinatz!».
- «Barriolak irabaziko du, aise gainera».
- «Herri txiki batentzat meritu izugarria iruditzen zait niri, eta egia esan biak ederki erortzen zaizkit. Azken egunetan telebistan ikusi ditut eta lagun onak diala argi dao, oso jatorrak dia. Beraz, zorionak bieie eta onenak irabaz dezala!».
- «Hainbeste final eta gero Abelek merezi du txapela!».

Supermerkatura arratsalde pasa



» Iritzia

Iraitz Lizarraga
Uzturretik

Lan kontuengatik Valentzia aldetik 15 bat egun egitea tokatu zait eta benetan harriritu eitorri naiz han dagoen hiper-supermega-market kulturarekin. Beldurgarria da hiria inguratzen eta hirian bertan dauden supermekatuen tamaina eta baita kopurua ere. Ikaragarria da ere leku hauetara arratsalde eta asteburu pasajoan den jende kopurua: familiak, lagun koadrilak, gazteak, haurrak, zaharrak...Eta guk ere, nahita ala nahi gabe, halako batetan amaitu genuen, halako batetan ez...handienean!!! Inoiz ez dut hainbeste denda batera ikusi...eta guztiak ondo antolatuta; gainera tokia eroso eta erakargarria egiten saiatu dira: dendak kanpokaldean kokatuak daude eta kaleak, plazak eta etorbideak osatzen dituzte: artean errekatxo artifizialak, lakutxoak,

urajauzi txikiak eta animalitxoen irudiak.... natura imitatu nahi izan dute dendaz inguratutako paraje artifizial batetan. Denda guzti hoiek eraiki aurretik bertan zegoen naturaren kopia egin dute, alegia, bertakoa suntsitu dute honen gainean lehen zegoenaren antza duen zer bait eraikitze... hau kontraesana!

Gizakiontzat berriz superfizie erraldoi hauek biurtu dira habitat naturala, bertan jendea zeinen ederki mugitzen zen ikusi besterik ez zegoen! Gu ere ederki moldatu ginen ingurune berrira: nirekin zertorren lankide batek aitortu zidan etxetik kanpora zegoenean horrelako lekuetara joatea gustatzen zitzaiola gutxienez bertako dendak Max-Centerrekoak bezalakoak zirelako, eta horrek etxetik gertuago sentiarazten zutela. Ene! Orain gainera gure identitate zeinu bihurtuko dira!

Lan egun gogor baten ostean ditxosozko zentzura joatea erabaki genuen, masokista xamarrek gara, ezta? Ordu bete egin genuen furgonetan autopistako irteera topatzen ez genuelako, baina halako batetan iritsi ginen ederki antolatutako aparkalekura; aparkalekua ondo antolatuta zegoen baina jendea ez zen moldatzen, eta autopistako es-

tresari, aparkalekuko estresagehitu behar. Kotxea utzi eta iritsi ginen erosketen paradisu; dendak, argi artifiziala, musika topera, jendea, jendea eta jendea... eskerrak lasaitzeko asmotan joan ginen! Baina abiadura handiko mundu honetan berehala topo egin genuen lasaitasun artifizialaren promesekin: espacio zen, ven y relajate, decora tu casa con el feng shui, confort relax... eta lehen aipaturiko errekatxoak, izurdeak, txoritxoak, Naturako hartz erraldoia... benetan superfizie handiak erreprezentatzen duenaren kontrako erabiltzen dute erreklamo gisara eta gu tonto moduan sarean erortzen gara.

Asko ikusi nuen egun honetan: ez dudala inoiz halako eskurtsiorik antolatuko baldin eta behar beharrezkoa ez bada. Beste gauza: fenomeno hau ez dela oraindik bere indar guztiarekin iritsi gure herrialdera, hemengoak beldurtzeko modukoa bada ere nik Balentzian ikusi nuenak ez dauka izenik. Ia gutxienez gauden moduan mantentzea lortzen dugun; herrietako komertzioa bultzatuz, neurririk gabe erosteko antsiak kontrolatzen ikasiz, gure aisialdirako alternatibak proposatuz eta pertsonen arteko harremanak bultzatuz.

Azokako postuek ere eguzkiaren beharra eskatzen dute

Azoka » Euria dela eta eskaintza mantendu egin da eta lehen ibarrako piparrak ere ikusi ziren salgai

PABLO ALBERDI

Hilabete honetako euria gehiegira jotzen ari da dagoeneko, batez ere azokan entzundakoaren arabera. Askok esaten zuten atzo eguzkiaren beharra dagoela barazkiak aurrera ateratzeko, eta nahiz eta euria lagun izan udaren arazorik ez izateko, eguzkia ere beharrezkoa da.

Eskaintza euriaren eraginez, mantendu egin zen atzo, ezustekoa eta guzti: Dirudienez eguraldiak asko laguntzen ari da ilarra eta baba oraindik fina mantentzen, eta gainera atzo ustekabeen ikusi genituen aurtengo lehenengo Ibarrrako piparrak ikusi genituen. Hauekin patata berria, espinaka, porru berria edo eta azenario berria ikusi genituen.

Perretxiko zerrenda oso zabala izan zen atzo ere. Ziza asko, ziza horia gora, eta onddoa bere hortan mantendu zen.

» ATZOKO AZOKA

PREZIOA	Merk.	Gares.
Berdura plaza		
Erromero	4,00	6,00
Geranioa	2,00	-
Klabelina	2,80	4,00
Surfinia	2,40	-
Salbia	1,00	1,20
Xarbota	4,00	6,00

Bertako produktuak

Ziza horia	20,00	-
Ziza	6,00	35,00
Gibelurdina	25,00	-
Onddo	21,00	30,00
Urra	3,00	4,00
Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	8,00	12,00
Ibarrako piparra	8,00	10,00
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	3,00
Azenarioa	1,20	3,00
Tolosako babarruna	10	12
Kalabaza	1,50	3,00
Erremolatxa	1,20	3,00
Ardigazta	16,00	-
Gazta berria	14,00	18,00
Arrautzak	1,10	2,40

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Baratxuria	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	2,00	-
Tipula	1,75	2,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Mermelada	3,00	3,90

A Argazki zaharra



1953ko uholdeak Tolosan

TOLOSA » Pasa den astean izandako euriteek gogora ekarriko zieten agian Tolosako herritar helduenei 1953. urtean izandako uholdeak. Oraingoan euririk ez du ezbeharrik sortu; baina historian zehar izan dira bai uholde-

ak. Gertuenak, 1983an gertatu ziren. Eta agazkien azaltzen direna 1953. urtean uholdeek Tolosan eragindako kalteak dira, Plaza Berrian, hain zuzen ere. Errepublikatuko al da halakorik? . JESUS ELOSEGI. 1907/1979 ARANZADI FOTOGALERIA

Txerta dezagun 'berdetasuna' gure bizitzan

» Iritzia

Garbiñe Olaberría Azaldegí
Enrioldea Udaltalde Zleko teknikaria

Ostegun honetan izan da Ingurumenaren Nazioarteko Eguna eta data seinalatua ospatu asmoz, Tolosaldeko udalerrri batzuetan Aste Berdea antolatu dute udalteekek. Nazioarteko eguna denez, leloa prestatuta ematen digute udalerriei eta aurtengoa ez da samurra izan herriarraztat. *Aldatu ohiturak! Karbonoa gutxituko duen ekonomiarantz.* Karbonoa gutxitu, baina

nola? Eta ekonomian eraginez gainera? Eta nik zergatik aldatu behar ditut nire ohiturak?

Aldaketa klimatikoaren berri horrenbeste entzuten dugun garrai honetan, jendea gaiarekin aspertzaren hasi da. Lankide batek esan zidan duela gutxi: «Nik jada ez dut ezer entzun nahi aldaketa klimatikoari buruz, beti kontu berdinarekin daude komunikabideetan!». Nahi edo ez nahi, ingurumen arazoekiko herritar gisa hartu beharreko konpromisoen aurrean bi jarrera posible daude: 1) Ezer ez egitea, pentsatuta, bakoitzak egiten duenak, gi-

zartean, ingurumenean eta ekonomian ez duela eraginik izango. 2) Konpromisoak hartzea, bakoitzaren ekarpenak besteekin batuta indarra izan dezakeela sinetsita.

Hitz potoloak alde batera utzita, denok ikusi dugu gure inguruan naturarentzat ez direla garai onak eta horrek gizakiengan duen eragina ere gero eta argiagoa da. Heldu da garaia Aste Berdeak ospatzeaz gain gure ohiko bizitzan «berdetasuna» txertatzen hasteko. Hartu beharreko neurriak zeintzuk diren antzematea erraza da, normalean neu-

rri horiek gure poltsikoetarako onura baitakarte, batzutan epe luzera bada ere: gutxiago kontsumitu beharra daukagu. Nola?

Hemen doaz ideia batzuk: berogailuak eta aire egokitua zentzuz erabili; hozkailuko paretetako izotza kendu; ahal denean behintzat arropa ur hotzarekin garbitu eta garbigailua beteta; lehorgailua erabili ordez, lehortu arropa kanpoan zintzilikatuta; ontzi-garbigailua ere beteta dagoenean jarri martxan; etxeko, eta batez ere, bulegoko argia beharrezkoa denean soilik piztu; bonbilla aldatzea tokatzen dene-

an kontsumo baxukoa jarri; «stand by» egoeran ez utzi telebista, irratia, ordenagailua... gutiz itzalita utzi, argitxorik ez dezatela piztuta izan; plastikozko poltsen ordez behin eta berriro erabil daitezkeen telazko poltsak erabili; bainatu ordez dutxatu; komuneko zisternan lekua okupatzen duen zerbait sartu ur gutxiago kontsumitzeko... Ah, eta beti irailerako gelditzen zaigun ikasgaia (horregatik ospatzen ote da irailen Mugikortasun Astea?): utzi autoa ongi aparkatuta eta joan oinez, bizikletaz edo garraio publikoa erabiliz!

Karbono gutxiagoko ekonomiaren alde

» Iritzia

Tolosako ingurumen zentroa

O nartu behar da klima-aldaketa gaur egungo arazo larrieta bat dela eta ondorioz, ezinbestekoa dela ikuspuntua berotegi-efektua eragiten duten gasen isurketan jartzea, helburu izanik haiek murriztea. Ingurumenaren Munduko Egunak karbono gutxi-ekonomia eta bizimoduak sustatzen dituzten baliabideak eta ekimenak nabarmendu nahi ditu, besteak beste, energia-eraginkortasuna, energia-iturri alternatibak, basoen kontserbazioa eta kontsumo ekologikoki kontsekuente-agoa.

2007ko hasieran, Europar Batasunak helburu hau jarri zuen 2012rako: CO₂ %80 gutxiago isurtzea, 1990eko datuekin alderatuta. Murrizketa hori gertatzeko, lerro estrategikoetako bat da gaur egungo gizarteko energia-iturri nagusiak diren erregai fosilen ordez (ikatz, gasa edo petrolio) energia berriagarriak erabiltzea. Zentzu

honetan, badirudi energia eramangarriagoen alde egiten duten politika energetikoak bat datozela Europako herritar gehienek gai honi buruz pentsatzen dutenarekin, izan ere, % 80 energia berriztagarrien aldekoa da. Bestalde, Eurobarometroak dio biztanleen % 37k ez duela onartzen energia nuklearra.

- Ibilgailuak errepidean: Garbi dago garraioa delaklima-aldaketaren aurkako borrokan atzeratuen dagoen sektorea.

Euskal Autonomia Erkidegoan 6 milioi desplazamendu izaten dira egunean: horietatik, % 38,8 auto pribatuan egiten dira eta % 17,5 garraio kolektiboan. Errepideko garraio-ibilgailuen isurketa azken energia-kontsumoak eragindako gutxitze isurketaren % 48 da. Dena dela, ibilgailu guztiek ez dute berdin isurtzen. Ondorengo taulan ikusten da hirian ibilbide motzetan autobusa erabilia gasolina behar duen neurri ertaineko auto bat erabilia baino heren bat gutxiago CO₂ isurtzen dela.

Egia da auto modernoek % 13 CO₂ gutxiago isurtzen dutela au-

rreko hamarkadetakoe baino. Hala ere, CO₂ isurketen % 60 errepideko garraioak isurtzen du eta nitrogeno-oxidoen % 50; beraz, ibilgailuen zirkulazioaren gorakada da Euskadin negutegi-efektuko gasen isurketek (GEI) ere gora egin izanaren arrazoi nagusi. Itxuraz dagoen kontraesana, hau da, ibilgailu bakoitzak gutxiago isurtzeak baina orokorrean isurketa-mailak gora egiteak azalpena badu: 1990 eta 2005 bitartean, kotxe kopuruak % 69 egin zuen gora Espainian; 11,9 milioitik 20,2 milioira. Gainera, batez beste, autoak astunagoak eta potenteagoak dira, energia gehiago galtzen dute alferri eta gainera, sarriago erabiltzen dugu autoa eta ibilbide luzeagotan.

Badago zer egina arlo honetan, baina ekintza murriztaile asko eta berrikuntza teknologikoaren alorreko beste asko —beharrezkoak erregai fosilak ingurumena gehiago errespetatzen duten erregai-kin ordezkatzeko— ez daude gure eskuetan. Nolanahi ere, geure esku dago, adibidez, garraio publiko erabiltzea autoa erabili beharrean.

- Etxean aurrezteak: Gure ibilgailuen gastu energetikoa garrantzitsua bada ere, garrantzitsua da, era berean, gure etxeetan egiten den gastua.

Itxuraz, elektrizitate garbia da. Erabiltzen den lekuan ez du kerik isurtzen, isila da eta ia denetarako balio du: argizatatzeko, berotzeko, hozteko, sukaldetan aritzeko, aireztatzeko, komunikatzeko eta hortzak garbitzeko ere bai. Energia-mota moldakorrena da eta gutxetaz ezinbestekoa. Baina itxurak itxura, energia garbia izatetik urruti dago. Adibidez, Espainian elektrizitate-ekoizpena da nagusi CO₂ isurtzen. Hori azaltzeko kontuan izan behar dira hartarako erabiltzen diren baliabideak: isurketen % 48 erregai fosilak erretzetik dator (fuela, gasa eta ikatza) eta, batik bat, ikatza erretzetik (% 30).

Zentzu honetan, Tolosako buzoietan informazio-foiletu bat banatu da, halako neurri txiki batzuen berri emateko eta horiei esker etxeko elektrizitate kontsumoa hobetzeko eta ondorioz, hileko faktura eta CO₂ isurketa ere murrizteko.

E Esanak



«Azken 10 urtetan asko aldatu naiz, baina batez ere esperientzian irabazi dut, eskarmentuan»

«Mendia ezin dut obsesio bihurtu, presarik gabe jarraitu nahi diot 14 gailurak egiteko bideari»

«Mendiak arriskuak ditu, baina bizitza bakarra da eta mendizaleok mendian gozatzen dugu»

EDURNE PASABAN
Mendizalea

Beria (2008/06/06)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Tolosa (Bellatokia)



Fleming ikastetxeko ikasleek goizean egindako saioan: Pirritx eta Porrotx kanta batekin dantzatzeko. ESTI EZEIZA



Hirukiden antzerki moduan ipuin bat kontatu zuten emanaldiarekin hasteko. E. E.



Samaniegon bunbuila erraldoiak egiteko aukera izan zuten. Atzean, bazkalostean zegoen giroa. E. E.



Ibarrako Uzturpe Egunean puzgarrietan salto egin zuten umeek. E. E.

Datorren irailera arte

Hezkuntza » Tolosan, Villabonan eta Ibarren egin zituzten jaiak, eta irakasle, ikasle eta gurasoak elkartu dira hauetan ikasturteari agur esateko.

NEREA URBIZU

Ikasle gaztetxoek ikasturtean egin beharrekoa bukatu egin dute eta askok merezitako festa egin dute, irakasle eta gurasoekin batera. Atzo, Tolosan, Villabonan eta Ibarren nabari zen non zebilen

jende gehiena, ikastetxeek antolatutako lekuetan. Ilusio handiz prestatutako jaiak izaten da, eta lan handia egiten dute bai ikasleek eta baita irakasleek ere, gurasoei gogotsu erakusteko asmoz eta gogoz.

Antzerkia, dantza, kantuak, kirola eta aisia aukeratu dituzte aurretik ere leku guztietan. Villabonako Fleming ikastetxeko kiroldegian mailaz maila prestatutako emanaldia izan zen goizean, eta ederki prestatuta zutela agerian zen.

Jesusen Bihotzekoek kirola aukeratu zuten arratsaldean hasteko. Krosaren bidez, herrian haurrak ikustea erraza izan zen.

Samaniegon eta Hirukiden

Tolosako Hirukiden meza ondoren kirola eta emanaldiak hasi ziren. Bazkari erraldoia ere egin zuten eta bertako frontoia erraz bete zuten. Guraso batzuk ere animatu

ziren patata tortilla lehiaketan. Antzerkia eta dantza izan zen emanaldi berezia ireki zuen ekitaldia: bertan ere jende asko bildu zen, kanpoaldean bezala.

Samaniegon goizean zehar hainbat joku izan zituzten, eta puzgarrietan saltatzeko aukera ere izan zuten. Bazkari erraldoiaren ondoren, puzgarriak eta xaboi burbuilak egin zituzten.

Ibarrako Uzturpe Eguna

Arratsaldean kiroldegian Uzturpeko ikasleek bertan jolasteko aukera izan zuten: bere kasa, eta baita puzgarrietan ere. Bertan, HITZAKO 10 harpidetza ere zozkatu zituzten eta hauek izan ziren irabazleak: Ander Telleria, Iñaki Barriola, Eider Otamendi, Ana Belen Goya, Pili Bilbao, Iñaki Sanchez, Amaia Lopetegí, Zoren Basualdo, Angela Ruiz eta Imanol Sorondo.

Tailerrak ere izan ziren eta bertan lepokoak makarroiarekin egin ahal izan zituzten umeek. Aurpegiak ere margotu zituzten bertan.

Bukatzean, DJ Bull izan zen Uzturpe Eguneko festan.

GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA KANASTIA

Teoria eta praktika
Ekainaren 30etik uztailaren 25era
eta Irailaren 1etik 26ra

Orduetia: 09:00etatik 13:30era,
astelehenerik ostiralera

Ikastaroaren prezioa: 300 euro

Izena emateko:

943-32 71 72 (Gipuzkoako AEK)

IZAN IRAKASLE AEKNI!

æk



Jesusen Bihotzeko ikasleek krosarean hartu zuten parte, Txermin auzoan. N. URBIZU

Aisiaren bidez eta gozatzuz, jendea kontzientziatzen

Ingurumena » Aste Berdeko ekimenen baitan, antzerkia eta bigarren eskuko azoka izan ziren atzo Villabonan.

ERREDAKZIOA

Ingurumena zaintzeko eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko bide eta modu ugari daude, baina askotan ez ditugu ezagutzen, edo axolagabetasunagatik, ez ditugu egiten. Horren atzean, kontzientziazio falta dago gehienetan. Hori dela eta, benetako egoeraz jende gutzia ohar dadin, hainbat ekimen ari dira gauzatzen egun hauetan zehar, Aste Berdearen baitan.

Atzo, Ernioaldea Udaltalde 21ek antolatuta, Villabonako Berdura plazan bigarren eskuko gauzen azoka jarri zuten. Bertan, mota guztietako tresna eta aparatuak aurki zitezkeen. Besteak beste, bigarren eskuko arropa, materialak berziklatuz egindako lanparak, papinak, diskoak, liburuak...

Batzuk Berdura plazako azoka ikusten zuten bitartean, beste batzuk, Errebote plazan egon ziren, Ten Con Ten talderen *Inguru/Menua* antzezlan ikusten. Bertan, egunerokotasunean egiten ditugun eta ingurumena kutsatzen duten gauzetaz hitz egin zuten aktoreek. Etxeko txikienei erakutsi zieten, esaterako, zein ondorio ekarri ditzazkeen kutsadurak, autoiabilteak...

Aste Berdearekin jarraituz, datozen egunetan ere hainbat ekintza izango dira eskualdeko herrietan. Gaurkoan, esaterako, *Kirolari ateak zabalik eguna* izango da. Goizpasa ederra egiteko aukera izango da alde batetik. Non 09:30a aldera, Uzturrera abiatuko diren. Han, hamaiketako egingo dute, eta musika ere izango da tontor inguru alaitzeko. Bestalde, 09:00etan hasita, Gipuzkoako arrantza txapelketa jokatu da Oria ibaiko uretan. Amuarrain eta zarboak arrantzatzen ibiliko dira goizean zehar sei eta hamabost urte bitarteko gaztetxoak.



Bigarren eskuko azoka eta *Inguru/Menua* antzerkia izan ziren atzo. ESTI EZBIZA

» ASTE BERDEA

Ekainak 8, gaur

■ **IX. Uzturreko Igoera.** 09:30ean Santa Klaratik abiatuko dira eta Uzturre mendira igoko dira. Musika izango da bertan eta hamaiketako egiteko aukera izango dute tontorrera igotzen direnek.

■ **Gipuzkoako amuarrain eta zarboen arrantza txapelketa.**

09:00etan hasiko da, eta 11:00 aldera arte iraungo du. Oria ibaiko uretan arituko dira parte-hartzaileak arrantzan.

Ekainak 9-12

■ **Gidatze iraukorren ikastaroa.**

Udal eta Udal zerbitzuetako langileentzat izango dira saio hauek.

Ekainak 11-13

■ **Erosketako poltsa berrerabilgarrien banaketa etxe egingo da**

guztietara. Ernioaldea Udaltalde 21en eskutik: Aduna, Asteasu, Iruera, Villabona eta Zizurkileeko etxe-entxe egingo da poltsa berezi hauen banaketa.

Besterik

■ **Escola Agenda 21eko egunkariaren argitalpena.** Errota Haur Liburutegian egingo da aurkezpena. Honez gain, klima aldaketari buruzko liburuen aukera berezia ere izango da.

Mendizale bat hil da Balerdi mendian, amilduta eta larri zauritu ostean

Amezketak » Buruan kolpe handia hartu zuen, eta helikopteroz jaso bazuten ere erietzera iristen hil zen.

ERREDAKZIOA

59 urteko Laudioako bizilagun bat hil zen atzo eguerdian Balerdi mendian, Amezketan, irrist egin eta amilduta. Eusko Jaurlaritzako Herreriaingoa Saileko iturriek agertu zuten, 12:30ean deitu zuten Sos Deiak-era, Balerdi mendizale batek istripua izan zuela esanez.

Ertzaintzako salbamendu taldeetako kideak helikopteroz joan ziren esandako ingurura, eta mendizale taldea aurkitu ostean, zauritua jaso zuten. Irri egin eta erortzean buruan kolpe handia hartu zuen, eta oso larri zegoen erreskatatu zutenean. Ondorioz, helikopteroz erietxera iristerako, bidean hil zen.

Balerdi mendia, Mallo Zaharra bezala ere ezaguna da, 1.195 metro dituz eta bertatik, Araitz bailara, Gipuzkoa eta Aralar mendikateak ikus daitezke.

Zaldi raid lasterketako ikastaroak interesa piztu du

Bedaio » 40 bat lagunek hartu zuten parte atzoko ikastaro azkarrean, Kultur Asteburuaren baitango ekitaldi berezian.

NEREA URBIZU

Bedaioko frontoian atzo, Kultur Asteburuaren baitan, zaldiarekin loturiko ikastaro azkar bat izan zuten, Narciso Arrillaga zaldi hezitzaile eta hazitzailearekin, eta Marian Guridi albaiariarekin. Zaldiarekin loturiko ikastaro honen helburua, besteen artean, irailaren 28an Bedaion egingo duten zaldi raid lasterketako arauak zein funtzionamendua azaltzea izan da.

Diapositibenez bidez Artubi elkartean bertan zaldiari buruzko informazioa ematen aritu ziren adituak, eta bertaratu zirenen artean galdera eta interes handia erakutsi zuten. 40 bat lagun bildu zituen ikastaro honek. Ondoren, behera jaitsi ziren eta zaldia aurrean izanda, detaille gehiago eta zehatzago eman zituzten.

Dena dela, irailean, zaldi raid-a egin aurretik berri ere arauak eta zehaztasun gehiago emango dituzte. Informazio aldetik ez da ara-



40 lagun inguruk hartu zuten parte. Hasieran diapositibak ikusi zituzten. N.U.



Kalparra ere zaintzen dute. N.U.

zorik izango, eta Bedaio ezagutzen jarraitzeko ibilbideetako bat zaldiz ere egin ahal izango da.

Ondoren talo jatea izan zuten bertan gelditzea erabaki zutenek, Artubi elkartean bertan prestatutakoak.

Mendi Martxa gaur

Gaur II. Mendi Martxa izango dute oinezkoentzat. Bizikletaz ere antolatu dute aurten estreinakoz. 07:30ean hasi dira abiatzen oinezkoak, eta 08:30ean, berriz, txirridulariak. Bi mendi ibilaldietarako ere prestatuta behar zen, ezin du edozeinek ere: «Ohitura pixka bat behar da, bestela ez da gozatzeko aukera handirik». Guztia ere, Bedaio ezagutzeko helburuarekin antolatu da. Hauek izango dira Kultur Asteburuko azken ekitaldiak.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna behar dugu, etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko.

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da umeak deitzeko. Harremanetan jartzeko, deitu 685 72 20 47 edo 635 71 24 41era.

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesatuak deitu 685 22 70 58ra.

SALGAI

■ **Autoa.** 98. urteko Mitsubishi autoa salgai. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 617 90 91 80.

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai dago Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin behar dago. Interesatuak deitu 657 23 0011 edo 634 91 94 82 telefono zenbakietara.

JOXEMI SAIZAR

Ruta Quetzal izeneko espedizioa txikitandik ezagutzen zuten Ane Ezeizabarrena kirolzale, naturzale eta abenturazale tolosarrak eta aurten bertan parte hartzeko aukera izango du begirale gisa, horretarako hautaketa proba gogorak gainditu ondoren. Panamako oihanean eta Espainiako hainbat lekutan ibiliko dira uda honetan.

Bere ahizpak aldizkari batean ikusi zuen espedizio horretarako begiraleentzako deialdia eta baldintzak (22-33 urte, lizentziatua eta lurreko eta uretako soroslea) betetzen zituela ikusita, bere burua aurkeztea erabaki zuen. Kurrikulumaz gain, esperientzia honetan parte hartzeko motibazioa azaldu behar izan zuen idatziz. Gazteekin lan egin izana ere baloratu zuten. Ane Ezeizabarrena Soin Heziketan lizentziatua da, begirale gisa aritu izan da hainbat udalekutan eta gaur egun irakasle da Etxarri Aranatzeko eskolan.

Kurrikulum eta idatzia aurkeztu zuten 400 gazteetatik 80 aukeratu zituzten elkarrizketa bat egiteko. Espedizioari buruzko galderak (Panaman izango da aurten eta ura izango da gaia) eta galdera pertsonalak izango zirela aurreratu zieten. Espedizioaren webgune ofizialean (www.rutaquetzal.com) bere historia, Cristobal Colonen bidaia Panama aurkitu zuenean, Panamako kanala, parke naturalak eta horrelako gaiak ondo presatatu zituen tolosarrak, baina horretaz ez zioten galderarik egin. Gaur egungo gazteak nola ikusten zituen, egoera zailei aurre nola egingo zien edo gazteak nola motibatuko litzuzkeen bezalako gauzak jakin nahi zituen epaimahaiaik.

Egoera zailetan nola erantzun

Proba hori ere gainditu eta azken probarako 40 gazte bakarrik gelditu ziren. Berririo Madrilera joan behar izan zuen, oraingo honetan Aste Santuko asteburu batean. Lehendabizi sorosle probak egin zituzten igerilekuan eta horiek gainditu zituztenek azken probari ekin zioten Avilako mendialdean. «Hiru egunetarako janaria, iparrorratza, linterna eta lozalkua eramateko esan ziguten. Beste informazioarik ez ziguten eman eta blogetan eta foroetan saiatu arren, ez nuen gehiago lortu. Kezka eta beldur pixka batekin joan nintzen. Superbientziako asteburu bat izan zen, mendian asko ibili behar izan genuen, gauez eta egunez, proba ezberdinak egin ezaldi berean, ez genuen lo egiteko denbora gehiegirik izan. Esperientzia gogorra, baina ona izan zen, horrelako gauzak gustatzen zaizkionentzat interesgarria», dio Ezeizabarrenak. Proba horien bidez egoera zailetan fisikoki eta psikologikoki nola erantzuten zuten jakin nahi zuten.

Handik hamar egunetara jakin zuen aukeratu zutela eta ekainaren 18tik uztailearen 28ra Ruta Quetzal espedizioan parte hartu-



Ane Ezeizabarrena tolosarra Soin Heziketan lizentziatua da eta irakaskuntzan ari da gaur egun. J.SAIZAR

Ane Ezeizabarrena begirale izateko aukeratu dute proba «gogor, baina interesgarri» batzuen ondoren; Panama eta Espainiako hainbat lekutan ibiliko da uda honetan gaztetxo batzuen ardura izanik.

Ruta Quetzalera

ko duela. Hogei egun Panamako oihanean egingo ditu (Rio de los cocodrilos oihanean eta Chagres ibaian) eta beste hogeitau Espainiako hainbat lekutan: Gaztela la Mancha, Gaztela-Leon, Madril, Zaragozako Expon... Guztira hamazazpi begirale izango dira, gehienak neskek, horietako lau iazko espedizioan parte hartutakoak. EAEko begirale bakarra izango da tolosarra eta bi begirale nafar ere izango dira bertan. 15-16 urteko hemezortzi gaztetxo izango ditu begirale bakoitzak bere ardurapean. «Gure lana gaztetxo horien arduraz izango da eta antolatzaileekin bitartekariak izatea. Informa-

zio guztia guk pasatuko diegu», dio.

Ekaineko lehen bi asteburuetan Madrilera joan beharko dute aukeratu guztiek eta lehen kanpalekua ezagutuko dute. Han prestakuntza, materiala eta ibilbidearen berri emango diete.

Urari buruzko programa

Guztira 300 gaztetxok hartuko dute parte aurtengo Ruta Quetzalera. Espainia guztiko partehartzaileak izango dira bertan, horietako batzuk BBVAko (espedizioaren babeslea) langileen seme-alabak dira eta beste batzuk atzerriarrak. Hauek gaztelaniaz jakin

behar dute. Urari buruzko lan bat aurkeztu behar izan zuten, idatzizkoa, musikala, historikoa edo eskulanean bat izan zitekeen, eta lan guztien artean aukeratu dituzte 300 horiek. Gaztetxo eta begiraleez gain, material taldeak, sendagileak, kazetariak... izango dira. «Aurtengo espedizioa gogorra izango dela esaten dute, euri garaiangoaz elkarrekin Panamara. Kanala eta kanala egin aurreko bideak eta gurutzebideak ezagutuko ditugu. Mendiz eta egun batzuetan erreka barrutik ibili beharko dugu», dio. Itzuleraren zain gelditu beharko dugu, bere esperientziaren berri izateko.

Kultura, zientzia eta abentura

J.SAIZAR

Ruta Quetzal izeneko programa Miguel de la Quadra Salcedo bidaiari eta kazetariak sortu zuen 1979an 16-17 urteko gazteentzat, Iberoamerikako kultura, zientzia eta abentura uztartuz. Urte haueetan Amerika osoko hainbat herrialde ezagutu dituzte: Mexiko, Amazona, Peru, Guatemala, Carolina, Venezuela, Dominikar errepublika, Costa Rica, Ekuador... Horiekin batera Espainiako hain-

bat toki ere bisitatu izan dituzte. Parte-hartzaileek informazio ugari jasotzen dute aurretik espedizioa behar bezala prestatzeko.

Bi tolosar partaide izan ziren

Aurtengo edizioan Ane Ezeizabarrena tolosarrak parte hartu behar badu ere, ez da lehen tolosarra izango. 1993ko udan Garbini Mendizabal eta Sandra Beltran tolosarrekin parte hartu zuten, gaztetxo gisa kasu honetan.

Hernan Cortes konkistatzailearen ibilbidea egin zuten orduan 50 egunetan zehar. Guadalupe Irlak, Puerto Rico, Santo Domingo, Honduras, Guatemala eta Mexiko ezagutzeko aukera izan zuten bi gazteek 38 herrialdeetako lagunekin batera. Mendizabalek maiet buruzko ipuina eta Beltranek Ameriketara joan zen euskaldun bati buruzko lana aurkeztu zuten eta 13.000 lanen artean aukeratu egin zituzten.

Laburrak

Aizkardi mendi elkartearen irteerarako izen-ematea

VILLABONA ● Aizkardi mendi elkarteak irteera berri bat antolatu du datorren astebururako. Hain zuzen ere, Lagran-Palomas (1.436 m)-Biasteri mendi zeharkaldia egingo dute igandean bertan. Interesatuek elkartearen bertan eman dezakete izena.

Elkar komunikatzen ikasteko hitzaldia, bihar

IKAZTEGIETA ● Bihar, Ikaztegieta liburutean, hitzaldia antolatu dute. 17:00etatik aurrera ekingo diote eta hitzaldiaren gaia *Elkar komunikatzen eta gainerakoekin ditugun harremanak hobetzen ikastea* izango da. Hitzaldiaren helburua «jendarterako eta komunikazioarako trebetasunak hobetzea, gizartearen era egokiago batean moldatzea» izango da.

Aitzol Udal Euskaltegiaren erakusketa, ikusgai

TOLOSA ● Aitzol Udal Euskaltegiak bere 25. urteurrena dela eta, ikasle eta ikasle ohien lanen erakusketa antolatu du euskaltegiaren bertan, hilaren 13ra arte.

Istilu ugari Gernikan, Ina Zeberio etakide zenaren omenaldian

Politika » Lizartzarren alde antolaturiko ekitaldiak debekatu zituzten Ertzaintzak bezperan.

ERREDAZKIOA

Atzorako Gernikan aurreikusita zegoen Ina Zeberio etakide lizartzarren omenaldia debekatu egin zuten herenegun Barne Sailak. Haren senideek eta lagunek, hala ere, Gernikarajoan ziren eta istilu ugari sortu dira omenaldira joan zirenen eta ertzainaren artean.

Arratsalderako manifestazioa egiteko asmoa ere bazuten, baina mobilizazio hori egiteko baimenik ere ez zuten eman. Ertzaintzak kode penaleko 578. artikulua erabili zuen atzo eguerdiko omenaldi ekitaldi debekatzeko, alegia, «jokaera terroristen gogorasunari buruzko delituak» arautzen dituen delitua.

X. urteurrena

Herenegun bertan betetzen ziren hamar urte ertzainek Gernikako Pablo Picasso kaleko etxebizitza batera sartu eta Ina Zeberio etakide lizartzarra hila zutenetik. Gaur Lizartzan egingo diote omenaldia.

E Elkarrizketa

TXOMIN ISUNTZA ETA MIKEL MAIZ ▶ Mendi Taldeko Kideak

Asteasu » Mendi taldea aurrera atera eta herrian saltsa sortu nahi dute. Hurrengoek, horri eustea gustatuko litzaieke, eta beste ezer egin nahi izatera, arazorik ez, aurrera.

ARRATE OTERMIN

Asteasuko herria, inguruko gainerrako herrien antzera, hazten ari da eta mendirako zaletasuna duen gazte asko etorri da bertara. Honekin guztiarekin, Herriak behar bat ikusi zuen, eta herritar batzuk, Mikel Maizek (Asteasu, 1970) eta Txomin Isuntzak (Ondarrua, 1971), besteak beste, mendi talde bat sortzea erabaki zuten: Sagain Mendi Taldea. Guraso gazte asko animatzen da hurrekin batera mendi irteerak egitera, baina horretaz gain, adineko nahiz gazte jendea ere, hurbiltzen hasi da mendi taldeak antolatutako ekin-tzetara. Talde irekia da, edonor sar daiteke taldean, eta nola ez, ibilaldietara joan nahi duena, gonbidatua dago horretara. Gainera, mendi taldeak, jendearengandik hurbilago izateko-edo www.sagain.org webgunea jarri du martxan.

Mendi Taldea Asteasun ...

Mikel Maiz: Inguruko gainerako herrien moduan, Asteasu ere asko handitu da; eta hazte horretan, mendian ibiltzeko zaletasuna duen jende asko etorri da herria. Askok eta asko, mendi elkarrekin mugitzen zirenak dira, eta orain, Asteasura etorri, eta bakoitza bere kasa hasi zen mendira joaten. Eta umeak aitzakia, plaza edota parke inguruan-edo, herrikoak elkarrekin ginenean, bateko batera, eta besteko bestera, asteburuan non ibili ginen kontatzen genion elkarri. Azkenean, artaldea banaturik zebilela ikusi, eta herrian behar bat zelajabetu ginen. Beraz, mendi taldea sortu genuen.

Eta izena?

Txomin Isuntza: Sagain, Asteasuko tontorrik altuena da, 700 metro neurtzen ditu; hortik taldeari Sagain izena jartzearen kontua.

Laguntzarik jaso duzue?

T.I.: Aurretik ere, udaletxeak bultzaturiko mendi eta bizikleta irteerak egiten ziren herrian. Hauen antolaketaz udaletxea arduratzen bazen ere, guk irteerak egiteko taldea sortuz gero, udaletxeak berak, diruz lagunduko gintuela esan zigen. Bilerak, berriz, udaletxean bertan egiten ditugu.

Lagun asko biltzen zarete?

M.M.: Zazpiren bat biltzen gara. Talde irekia da, eta gure taldean sartu nahi duenak, bileraren batera etorri besterik ez du. Gainera, ibilaldietara jende asko animatzen da, eta hurrengoetara etorri nahi duenak, horretarako ere libre du.

T.I.: Elkarre batek lan eta denbora



A. OTERMIN

«Guk ez dugu mendirako talde beharrik, zenbait jendek, osterera, bai»

asko eskatzen du, eta guk ez genuen konpromezu handirik hartu nahi. Izenak esaten duen bezala, ez gara elkarre bat, mendi talde bat, baizik. Bestalde, taldea irekia uzte-arekin, gurera jende gehiago hurbilduko dela uste dugu.

Eta zer egiten duzue bileretan?

T.I.: Taldea nahiko azkar sortu zen; kontu asko bere kabuz joan dira. Oraingoz ez dugu egutegi jakinik eta finkorik, baina hurrengo urtean, lasaiago ibiliko garen esperadugu egutegi bat antolatu ahal izatea, eta horren gainean lan egitea.

Bien bitartean, hamabostean behin (astelehen arratsaldeetan) elkarrekin garenetan-edo, aurreko bileraren balorazio bat egiten dugu, eta ibilaldirik izan bada, horren inguruan ere hitz egiten dugu. Segidan, hurrengo irteerak antolatzeari ekiten diogu.

Taldeak badu ardura berezirik?

M.M.: Guk mendira joateko eta mendian mugitzeko ez dugu inolako arazorik, ez dugu talde baten beharrik. Baina bada jendea, mendian-edo laguntza behar duena, edota inguruko mendiak ezagu-

tzen ez dituenak. Orduan, jende hori galduta sentitzen da, eta ez da mendira animatzen. Gure asmoa, hori da, jende hori animatu eta ahal den jende gehiena mugitzea. Eta gainera, gure umeak ere, gelako umeekin mugitzen badira, askoz ere hobeki ibiltzen dira eta gusturago joaten dira. Haiek gustura badaude, gu ere bai.

T.I.: Eta gero ere, asmoa dugu mendietako mapak eta mendiei buruzko liburuak, ... eta bestelako mendiaren inguruko informazioa jendeari eskuragarri jartzea.

Taldeak nolabait antolatua zego-

la, noiz eta nora antolatu zenuten lehen irteera?

M.M.: Aurreko udazkenean hasi ginen taldea sortzeko ideiarekin inguruan hizketan. Lehenengo bilerara azaroan egin genuen, eta lehen irteera, osterera, abendu hasierarako antolatu genuen: Zarauztik Zumaiarainoko bidea egin genuen. Hasierako hilabete haietan, irteera bakarra eginez ibili gara, baina azken bi hilabeteetan, berriz, bi irteera; bata oinez eta bizikletan, bestea.

T.I.: Eta horrela jarraitzeko asmoan gara, hilero irteerak antola-

Mendietako mapak eta liburuak ateratzeko asmoa dugu, jendek eskura izan ditzan

Txikitxoekin gogoratu eta saiatzen gara bizikleta nahiz oinez ibilaldi motzak ere antolatzen

tzen. Horretaz gain GPS ikastaro bat antolatu nahian-edo gabiltza, eta urte amaieran mendi astea moldatzea egokituko zaigu.

Zer nolako jendea animatu zaizue?

T.I.: Denetarik izan da; baina gehien bat gurasoak haien umeekin. Kalean ere esaten digute, gurea ez dela mendi taldea, guraso elkarre bat, baizik. Agian, orain artean behintzat, ekintza gogortxoak antolatu ditugunetan, ez da gazte askorik animatu, eta azkenean, bestelako irteerak egitera animatu gara. Zailagoa da gazteengana hurbiltzea, euren kabuz ibiltzea gustatzen zaie, eta ahal bada kanpora begiratzen dute.

M.M.: Gaur egun, mendiak aukera asko ditu, eta gazteak bestelako ekintza mordo da du eskura. Gazte hasten dira parrandan, eta behin 26 bat urtera iritsitaikoa, parrandetako taberna zulotik, Pirinioetara pasatzen dira zuzenean. Beste gogo eta ilusio batzuk dituzte. Inguruko mendiak berandugarako uzten dituzte. Hurrengo urteari begira, saia gaitzeko gazte huentzat gustuko dituzten ekintzekin zerbait antolatzen, materiala izan badugu-eta. Horrela, nahi duena, anima dadila.

Orduan, irteerak hurrei begira ere antolatzen dituzte?

T.I.: Txandaka-edo saiatzen gara batzuetan ibilaldi motzak antolatzen. Horrela, haurrek ere, koxkorrik direnak oinez eta txikianak motxilan, gurekin etor daitezke. Bizikleta irteerara ere, 8 urte inguruko umeak animatu ziren, eta pozik, gainera. Ibilaldi luzeagoak egiten ditugunean, berriz, hauek animatzen diren artean haurrek bada, bertan ere, umeekin ordezko bidea antola daitezke, eta gero denok berriro elkartu. Antolaketan orduan ikuspuntu ezberdinak ditugu, baina moldatzen gara.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Lizartza.** Inaren heriotzaren X. urtemuga: 9:00etan mendi irteera Axurdariora, 13:00etan ekitaldia monolitoaren aurrean (txalapartariak, bertsolariak, dantzariak, hizlariak, abeslariak) eta 14:30ean bazkaria ekartean.

Hitzaldiak

■ **Ikaztegieta.** Bihar *Elkar komunikatzen eta gainerakoekin ditugun harremanak hobetzen ikastea* hitzaldia, 17:00etatik aurrera liburategian.

Kirola

■ **Tolosa.** Gipuzkoako amurrairen eta zarboen arrantza txapelketa 09:00etan Oria ibaiko uretan.
■ **Tolosa.** IX. Uzturreko Igoera: 09:30ean Santa Klaratik irteera, 10:00etan Izaskunen, Uzturren musika eta hamaiketakoa.
■ **Villabona.** Lagran-Palomares (1436 m)-Biasteri mendi zeharkaldia antolatuta du Aizkardi mendi elkarteak hilaren 15erako. Izenematea, elkartean.

Zinema

■ **Tolosa.** *La banda del patio* animazio filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.

Erakusketak

■ **Alegia.** Alegiako jubilatuen tabernan Noelia Crujeirasen margolan abstraktoak izango dira ikusgai hilabete osoan zehar. Asteartetik igandera bitarte.
■ **Tolosa.** Aitzol udal euskaltegiaren 25. urteurrena dela eta, ikasle eta ikasle ohien lanen erakusketa ikus daiteke bertan.
■ **Tolosa.** Jose Luis Lopez Tolosaren margolanak ikusgai daude Itaie tabernan. Tolosa, Donostia, Donibane eta Errezilgo paisajeak dira.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 943 670128.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
BIHAR
■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Zorionak!

Ramon eta Manuela (Tolosa). Gaur zuen ezkontza egunaren 60. urteurrena ospatuko dugu. Ondo pasa eta muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Nerea Ormaetxea (Alegia). Bihar 6 urte. Zorionak eta 1.000 muxu etxekoan partetik.



Urte askoan!

Morena. Luffi!! Bihar zure urteak, muxu handi bat.



Urte askoan!

Alain Ugartemendia Goikoetxea (Elduain). Asteleheneko urtebetetze eta gaurko jaunartzeagatik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

berriak 5 urte

Parte-hartzaileak

Mokaua
Beobide eta
Aukerako dantzariak
Anari
Ruper Oradnika
Aitor Mandiluze
Xabi Páyo
Asier Otamendi
Xabier Silveira
Amets Arzallus
Harkaitz Cano
Maialen Lujanbio
Kirren Unibe
Kike Amonarri
Ilazki Serrano

berria
luzatu bostekoa

EKITALDI NAGUSIA
Ekainak 21, larunbata, 19:30ean
Donostiako Kursaalako Auditoriumean

Zatoz gurekin ospatzera!

SARRERA DOAN • Sarrerak eskuratzeko: 943-30 40 30 • www.berria.info
Dengorrezkoa da sarrerak aurrerik ezkartzeko ekitaldiaren irabazimena

berria kutxa

euskarazko
zure-azoka

berehala gatoz